

2020
urriatik
abendura

DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETXEA

okendo kalea 9, Donostia



AURKEZPENA

Emakumeen Etxea da gune bat, non emakume ugari eta askotarikoak biltzen garen, prestakuntza jasotzeko eta gogoeta nahiz ekintzak egiteko.

Bertan, zerbitzuak, tailerrak, taldeak eta jarduerak eskaintzen ditugu 2010az geroztik, emakumeen bizimodua hobetzeko, eta berdintasun handiagoko gizarte bat lortzeko.

Emakumeen elkarte mugimendua eratu da Emakumeen Etxea Elkartearen inguruan; hain zuzen, etxeko jarduerak kudeatzeko eta dinamizatzeko helburuz. Denbora igaro ahala, Elkarteko bazkide aktiboenak batzordeak eta lantaldeak sortzen joan dira, haien interesen arabera. Batzorde bakoitzak bere helburuak ditu, eta bazkideek batzorde guztietan har dezakete parte.

Helbidea

Okendo 9, 20004 Donostia

Telefonia

943 48 34 70

Ordutegia

Astelehenetik ostiralera
10:00 - 21:00

E-mail

info@donostiakoemakumeenetxea.com
berdintasuna@donostia.eus

Web:

donostiakoemakumeenetxea.com

KONTUAN HARTU BEHARREKO OHARRAK:

- Ikastaroetan **izen ematea** Irailaren 7tik 20ra arte egingo da. Betetzen ez diren ikastaroen izen-emate epea, ikastaroa hasi arte luzatuko da.
- Izen-ematea Internet bidez egingo da honako web orrialdeetan:
www.donostiakoemakumeenetxea.com
www.donostia.eus/berdintasuna
Laguntza behar baduzu izena emateko, gerturatu zaituz Emakumeen Etxera.
- Ikastaro eta zerbitzu guztiak doakoak dira.
- Pertsona bakoitzak gehienez hiru ikastarotan eman ahal izango du izena.
- Zerbitzuetan hartutako hitzorduetara edo tailerretara aurrez abisatu gabe joaten ez direnek ezin izango dute zita berririk eskatu, edo ikastaro berrietan parte hartu, urtebeteko epean.
- Ikastaroa hasi eta gero utzi nahi dutenek, Etxeko koordinatzaileei jakinarazi beharko diete. Hiru saiotan kale egiten duenak -justifikatu gabe-, ezingo du ikastaro gehiagotan parte hartu urtebeteko epean.
- Egoeraren arabera jarduera eta zerbitzu guztiak presentzialak edo on line izan daitezke.

ELKARGUNEAK

Talde hauek ikasturte osoan zehar elkartzen dira eta gehienak irekiak mantentzen dira parte hatzaile berrientzat.



INDARKERARIK GABEKO BIZITZAREN ALDEKO EMAKUMEAK

Formatzailea: Beatriz Zalakain

Eguna: ostegua

Ordua: 16:30 - 18:30

DESGAITASUNA DUTEN EMAKUMEEN AHALDUNTZE TALDEA

Formatzailea: Rosa Ugalde
Urbiztondo, ELKARTU

Eguna: ostirala

Ordua: 11:30 - 13:30

Hasiera: irailak 4

Iraupena: ikasturte osoa

Hizkuntza: elebiduna



Desgaitasuna duten emakumeak elkartzeko gunea da, norbere burua ezagutu eta aitortu ahal izateko. Desgaitasuna duten emakumeek bizi duten diskriminazio bikoitzaren egoera aztertzea du xede talde honek, ahultasunari eta desparekotasunari aurre egiteko.

Horretarako ezinbestekoa da beraien eskubideak ezagutzea eta horien gauzatzea sustatzea, norbanako eta taldeko ahalduntzea lantzeko bidean.

Antolatzailea: Berdintasun Saila

JATORRI ASKOTARIKO EMAKUMEENTZAKO KULTURARTEKO GUNEA

Formatzailea: Beatriz Zalakain

Eguna: asteartea

Ordua: 16:00 - 18:00

Hasiera: irailak 15

Iraupena: ikasturte osoa

Hizkuntza: gaztelania

Jatorri desberdineko emakumeak taldean egoteko gunea. Astean behin biltzen dira (joatea libre da), beren bizitzan migrazioa nola bizi duten elkarrekin aztertzeko. Zailtasunetatik ikasten dute eta sozializatzen dituzte banakakoan eta taldearen lorpenak. Osasun fisikoa eta emozionala hobetzeko eta bizi diren hirian gehiago sustraitzeko tresna nahiz baliabideak bereganatzen dituzte; isolamendutik ateratzen dira; euskal gizartea eta jatorrizko gizartea, biak, ezagutzen dituzte; elkarrekin aisialdi, dibertsio eta ezagutza ekintzetan parte hartzen dute.



Antolatzailea: Kulturantzatasuneko Saila

MATRAKA GUNEAK

Espazio hauek irailean irekitzen ditugu eta batzuetan, toki libreak geldituz gero, urtarrilean ere bai. Bertan ikasturte osoko lanketa feminista bat egiten da eta Etxetik kanpoko proiektzioa duen talde bat sortzen da.



IRAKURLE ESKOLA FEMINISTA

Formatzailea: Iratxe Retolaza
Eguna: asteartea,
hilabetean behin
Ordua: 19:00 - 20:30
Hasiera: urriak 27
Iraupena: ikasturte osoa
Hizkuntza: euskara



Irakurle talde honetan ahalduntze eta kontzientziazte feministan sakonduko dugu, betiere ardatz hartuta pentsamendu kokatua eta gorpuztua. Horretarako, sorturiko galderak, kezkak, giltzarriak eta diskurtsoak eztabaidatuko ditugu, esperientzia eta pentsamendu feminista baitetik. Askotariko irakurgaietatik abiatuko gara (testu solteak, artikulak, liburuak...) eta trakerako gune bat sortzea izango dugu helburu, pentsamendu kolektiboa sustatzeko asmoz, eta Euskal Herriari zein euskal kulturari buruzko pentsamendu kritiko-feminista garatzeko.

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkarte

AFEKTU-GOSEAK EUSKAL LITERATURA GARAIKIDEAN

Formatzailea: Iratxe Retolaza
Eguna: asteartea,
hilabetean behin
Ordua: 19:00-21:00
Hasiera: urriak 6
Iraupena: ikasturte osoa
Hizkuntza: euskara

Azken aldi afektu-goseen, afektu-minen eta afektu-sareen inguruko literatur lan ugari argitaratu dira, guztietan ere harreman pertsonalek zein nortasun-sareek indar berezia hartuz. Irakurle-talde honetan afektuen inguruko literatur lanak izango ditugu hizpide, betiere genero-ikuspegiak afektu-sare horiek nola zeharkatzen dituen aztertze asmoz. Galdera hauetariko zenbait erantzuten ahaleginduko gara irakurketa-talde honetan: zein afektu-sare eta afektu-ardatz irudikatu dira euskal literatura garaikidean? Afektu-sare eta afektu-ardatz horiek zer genero-ikuspegi irudikatu dituzte? Afektu-sare eta afektu-ardatz horiek irudikatzean, nolako proposamen feministak egin dira? Irakurleok nola eraikitzen dugu geure afektu-ardatzak eta pertsonaiaren afektu-ardatzak arteko harremana?

* Oharra: momentuz, soilik itxaron zerranda irekiko da

Antolatzailea: Berdintasun Saila

PARLERAS (Bi talde)

Emakumeen literaturako bidaiak infinitua izan daiteke, eta halaxe da, izan; baina, infinitua gure esku ez dagoenez, bi urteko ibilaldi bat egitea proposatzen dizuegu, gainerako bidean aurrera egiteko tresnak emango dizkizuen ibilaldia. Ingalaterrako emakume klasikoak bisitatuko ditugu, Parisera erbesteratutako amerikarrak, modernismoko emakumeak eta Harlemeko errenazimentukoak, besteak beste. Eta liburuaz hitz egingo dugu, horixe egiten dute Parlerak eta.



PARLERAS 1

Oraindik era honetako beste lantegi batzuetan parte hartu ez eta emakumeen literaturarekin bi urteko konpromisoa hartu nahi duten emakumeentzat pentsatua.

Formatzailea: Mertxe Tranche

Eguna: asteartea,
hilabetean behin

Ordua: 19:00 - 21:00

Hasiera: urriak 6

Iraupena: ikasturte osoa

Hizkuntza: gatelaniaz

Antolatzailea: Berdintasun Saila

PARLERAS 2

Aurten, Prekuelan parte hartu edo lehen ere beste literatura lantegiren batean aritu diren emakumeentzat izango da ikastaroa.

Formatzailea: Mertxe Tranche

Eguna: asteartea,
hilabetean behin

Ordua: 19:00 - 21:00

Hasiera: urriak 13

Iraupena: ikasturte osoa


Hizkuntza: gatelaniaz

Antolatzailea: Berdintasun Saila

VENTANERAS

Formatzailea: Mertxe Tranche
Eguna: osteguna,
hilabetean behin
Ordua: 19:00 - 21:00
Hasiera: urriak 15
Iraupena: ikasturte osoa
Hizkuntza: gatelaniaz

Novisimen (mende honetan emakumeek idatzitako testuak) eta emakume idazle klasiko handien arteko bidaiari ekin dio Ventaneras ekimenak, horietako batzuk ahaztuak edo ezezagunak baitira, handiak izan arren. Aurten, gainera, egunkariak eta (auto)biografiak sartuko ditugu, idazleei leiho intimoenetatik begiratzeko.



ANTZERKI LABORATEGI FEMINISTA

Formatzailea: Aitziber Eguskiza
Eguna: asteazkena
Ordua: 18:30 -20:00
Hasiera: urriak 14
Iraupena: ikasturte osoa
Hizkuntza: elebiduna



Zure gorputzarekin gozatzeko gunea bat, heteropatriarkatuaren zirrikituak salatzen gunea. Gorputza eta sentsibiltatea erdigunean, apenas hitzik gabeko entzumena garatuko dugu. Estereotipo matxista guztiak dantzaz jartzeko gunea sortuko dugu, ahizpatasunaren, plazeraren eta konexioaren bidez, sormenaren izenean.

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkarte

CLOWN

Formatzailea: Beatriz Egizabal

Eguna: astelehena

Ordua: 18:15 - 20:15

Hasiera: irailak 28

Iraupena: ikasturte osoa

Hizkuntza: elebiduna

Sudurrean gorria eta gorputzean irria !

Barre egiten badakizu, ziur. Jolasten ere bai. Eta egin ere egingo duzu edo, behar bada, aspaldi ez duzu egiten. Clown taillerrean hori behintzat aurkituko duzu: jolasa, irribarrea eta tarteka algarak. Horrekin batera, porrotaren aurrean zure jarrerak ere aldaketaren bat izango du, eta dena emakumez inguratuta. Gurekin jolastu nahi?



Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

BATUKADA FEMINISTA

Formatzaileak: Ainara Sarasketa,
Arantxa Vicedo

Eguna: asteazkena

Ordua: 18:30 - 20:30

Hasiera: urriak 7

Iraupena: ikasturte osoa

Hizkuntza: elebiduna



Ikastaroaren helburuak emakumeon arteko harremanak eta elkartasuna sustatzea, musikaz gozatu eta gozaraztea, eta irudimena eta sormena garatzea dira, besteak beste. Horrez gain, auto-garapena eta taldekako jabetzea bultzatzea, emakumeok kulturaren dugun parte hartzea indartzea, eta emakumeok nahiz feministok ikusiak eta entzunak izatea esparru publikoan.

* Oharra: momentuz, soilik itxaron zerranda irekiko da

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

TALDEKO KANTU GUNEA

Formatzailea: Bettina Aragon

Eguna: ostirala

Ordua: 19:30 - 21:00

Hasiera: urriak 2

Iraupena: ikasturte osoa

Hizkuntza: gaztelania

Donostiako Emakumeen Etxeko abesbatzak, Ederlezik, 4 urte daramatza dagoeneko gorputzaren bidez eta taldeko kantuaren lan kolektiboaren bidez ahalduntzea lantzen. Eta, ikasturte berri honetan, atek berri irekiko ditu emakume berriak hartzeko, zeinak kantuan eskarmentua izanik beste leku batetik landu nahi duten.



Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkarte

XAKEA

Formatzaileak: Elisabeth Aguirre,
Leire Cruz

Hasiera: urriak 6

Iraupena: ikasturte osoa

Hizkuntza: gaztelania

Ordutegia: **Xake 1**
asteazkena
19:30 - 20:30

Xake 2
osteguna
18:30 - 19:30



Kirola eta lehiaketa interesatzen zaizkizu? Xakean estrategiarekin jokatzeko ikasi nahi duzu?

Eman izena xakea gustuko baduzu, zure teknika hobetzeko praktikatu nahi baduzu edo zerotik ikasi nahi baduzu eta lehiaketa gustatzen bazaizu. Donostiako Emakumeen Etxeak urteak daramatza Gipuzkoako Emakumeen Xake Txapelketa antolatzen eta emakume gehiago nahi ditugu gure artean, beraz, zure zain gaude.

* **XAKE 1:** momentuz, soilik itxaron zerrenda irekiko da

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkarte

FORMAKUNTZARAKO BLOKEAK

SEXUALITATEA, OSASUN MENTALA ETA FEMINISMOAK,
EMAKUMEAK ETA EKOIZPEN ARTISTIKOA, AUTONOMIA

Gai zehatzak lantzeko gune trinkoak, non diskurtsoak sortzen ditugun eta elkar hartzen dugun, formakuntzen bitartez elkar ahalduntzeko xedearekin.



AUTODEFENTSA IKASTAROAK

Ikasi nahi duzu eraso matxistei
aurre egiten?
¿Kalean aske sentitu nahi
duzu?
Uste duzu ezingo zarela
defendatu?



GAZTELANIAZ

Urriak 2 ostirala
16:00 - 19:00

Urriak 3 larunbata
10:00 - 20:00

Formatzailea: Isa Bernal

EUSKARAZ

Azaroak 7 larunbata
10:00 - 20:00

Formatzailea: Emagin

Antolatzailea: Berdintasun Saila

EMPALABRAMIENTO

Formatzailea: Nerea Del Campo

Eguna: asteazkena

Ordua: 17:00 - 18:30

Hasiera: urriak 7

Amaiera: abenduan

Hizkuntza: gaztelania

Empalabramiento hezkuntza metodo bat da, hezitzaileak berak, Nerea del Campok, sortutakoa. Emakumeen jabekuntza sustatzea du helburu, bigarren hizkuntzat gaztelania hartu eta hala hitz eginez (euskarazko zertzelada batzuk ere sartuta). Gaztelaniaz hitz egiten ez den herrialdeetako emakume migratuentzat da, beren eskubideak izendatzen eta aitortzen ikasi eta eskubide osoko herritar izateko autonomia lortzeko.



Antolatzailea: Kulturantzitasun Saila

SEXUAZ HITZ EGIN DEZAGUN

(9 saio)

Formatzailea: Irantzu Varela

Eguna: ostirala

Ordua: 18:00-20:00

Hasiera: urriak 2

Amaiera: azaroak 27

Hizkuntza: gaztelania



Sexua eta sexualitatea gorputzen arteko komunikabideak dira. Horrela izanda, eraldatzeko eta askatasunerako tresna bat izan daitezke, baina aldi berean, kontrolatzeko eta erreprimitzeko arma bezala erabili ditu sistemak. Gizarte patriarkal, heteronormatibo, kapitalista, arrazista eta kolonial honetan, moralaz mozorrotu dira gorputzen antolamendua, afektuak eta praktika sexualak, baita osasunaz eta zientziaz ere. Gure gorputzak eta horien bidez hezurmamitzen ditugun desirak kaosaren agente dira. Eta sistemak bada-ki hori. Guk feministok beste plan batzuk ditugu.

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

sexualitatea

OSASUN MENTALAREN GAINEKO BEGIRADA FEMINISTA BAT II

(6 saio)

Formatzaileak: Maria Zapata, Itxaso Martin, Maier Irigoien

Eguna: osteguna

Ordua: 18:30-20:00

Hasiera: urriak 8

Amaiera: azaroak 12

Hizkuntza: elebiduna

Ikastaro honen helburua da aztertzea osasun mentalekin zerikusia duten diagnostikoak dituzten pertsonen erresistentzia, agentzia eta indarberritze estrategietako batzuk. Ekintza ezberdinei buruz hitz egingo dugu zeinak oinarritzat duten gorputza, elkar laguntza taldeak edo oro har komunitate laguntza. Eta ikastaroa amaitzeko, psikoterapia feministari atentzio berezia eskainiko diogu.



Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

osasun mentala eta feminismoak

IKUSGAI JARRITAKO ETA BORTXATUTAKO GORPUTZAK... EMAKUMEAREN IRUDIA ARTEAREN HISTORIAN.

MUSEO HANDIEN OBREN
INDARKERIA MATXISTAK

(7 saio)

Formatzailea: Lola Roldan

Eguna: asteazkena

Ordua: 19:00 - 20:30

Hasiera: urriak 7

Amaiera: abendua 16

Hizkuntza: gaztelania

Museoetan ikusten ditugun irudiekin ez gara izutzen, nahiz eta emakumeen aurkako indarkeria agertu. Hala ere, museo handiak bisitatzea, Artearen Historiak maisutzat jo izan dituen lanak biltzen dituztenak, ibilbide bisual bat izan ohi da, non emakumearen aurkako bortxaketak, bahiketak eta gainerako irainak zabal jasotzen diren. Maisulan hauek emakumeen kontrako indarkeria azaleratzen dute zerbait ederra, estetikoa eta plazerezkoa izango balitz bezala. Indarkeria matxista horiek naturalizatzen dira eta, era horretan, gizakiok praktika hauek barneratzen ditugu.

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

EUSKAL DANTZATIK FEMINISMORA

Tailer teoriko praktikoa

(4 saio)

Formatzaileak: Karla Agirre Aranburu,
Amaia Marin Zabala

Eguna: astelehena

Ordua: 18:00 - 21:00

Hasiera: azaroak 9

Amaiera: azaroak 30

Hizkuntza: euskara

“Dantza bikoteak mutilez eta neskez osatuta daude beti. Gonak belaun azpitik joan behar dira beti. Ezin duzu hau dantzatu mutilentzat bakarrik da eta. Lehen emakumeek ez zuten plazetan dantzatzen”... Tradizioa tradizioa da, baina euskal dantzen munduan feminismitik badugu zer aldatu.



Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Arreta eta Bideraketa

Informazioa, orientabidea eta harrera Emakumeen Exeko bertako baliaabideetara edo kanpokoetara bideratzea.

Egilea:
Emakumeen Etxeko bertako langileak

Astelehenetik ostiralera
10:00 – 21:00
Hitzordurik gabe

Etxeko Langileentzako Aholkularitza

Honako gaien inguruko aholkularitza: eskubideak eta betebeharrak, soldatak, kontratu motak, oporrak, egun eta ordu libreak, kotizazioak, baimenak, kaleratzeak...

Egilea:
Ana Lopez eta Juana Aranguren

Astelehena
16:30 - 18:30
Hitzorduarekin

Aholkularitza Juridikoa eta Gizarte Esku-Hartzea

Espetxe eta zigor zuzenbidea.
Atzerritartasuna.
Lanerako zuzenbidea.
Genero indarkeria.
Hirugarren adina: erretiroa, pentsioa, alar-guntasuna... Tramiteak egiteko laguntza.

Egilea:
Arrats Elkarte

Asteazkena
16:00 - 18:00
Hitzorduarekin

Ordenagailu eta Internet zerbitzua

Astean Zehar.
Doako erabilera.

Ordutegia:
10:00 - 21:00

ZERBITZUAK

Hitzordua eskatu ahal izango duzue telefono honetan

     **943 48 34 70**

Laguntza Psikologikoa

Aholkularitza, prebentzioa eta ahal-duntzea helburutzat izanik eta metodo-logia elkarreragileaz baliatuz, norberaren indarretan oinarritutako baliabideak lortuko dira.

Egilea:
Maite Santamaria

**Asteazkena
10:00 - 13:00
Hitzorduarekin**

Lege Aholkularitza

Famili zuzenbidea, lanerako zuzenbidea, atzerriartasuna, genero indarkeria.

Egilea:
Emakume Bananduen
Elkartea

**Asteazkena
19:00 - 21:00
Hitzorduarekin**


Biluzik Mundura

Sexualitate informazioa eta aholkularitza zerbitzua.

Egilea:
LAHIA 3.0

**Astelehena
17:00 - 20:00
Hitzorduarekin**

Sare sozialetan:

 @lahia3.0

Emaila:
biluzikzerbitzua@hotmail.com

Gizarte Aholkularitza

Gizarte laguntzei buruzko informazioa behar duzu? Etxebizitza? Enplegua edo formazioa?

Egilea:
Rosa Ugalde

**Asteartea
16:00 - 18:00
Hitzorduarekin**

“Iguálate” Ikasketen Homologazioa

Atzerrian egindako ikasketen tituloak balioztatzeke aholkularitza eta laguntza.

Egilea:
Bidez Bidez

**Osteguna
10:00 - 12:00
Hitzorduarekin**



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Berdintasuna
Igualdad



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputazio Nagusia
Berdintasun Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Igualdad



Asociación Casa de las Mujeres